

GASTEIZKO ETEAK EKONOMIA ZIRKULARREAN

Posted on 31/05/2024 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Ekonomia zirkular baterantz](#), [ETE lehiakorrak](#), [Gasteiz](#), [PYMEs competitivas](#)

NAIDERek [Gasteizko Udalarekin](#) egingo du lan, Gasteizko enpresa txiki eta ertainei aholkularitza- eta laguntza-zerbitzu bat emateko, ekonomia zirkularraren ikuspegia beren negozio-ereduan txerta dezaten. Zirkulartasunaren aldeko apustu hori bat dator [Gasteizko Industria Planaren](#) 4. helburuarekin (ekoizpen-eredu zirkularretarantz aldatzeko beharra jasotzen du) eta Gasteizko Ekonomia Zirkularreko 2024-2027 Planarekin.

Lana garatzeko, NAIDERek [**CICLO \(Circular Global Challenge\)**](#) metodologia proposatzen du, garapen propioa. CICLOk ikuspegi neurgarria eta konparagarria eskaintzen du edozein motatako enpresentzat, abiapuntu eta helburu pertsonalizatuak ezarriz. Gainera, aukera ematen du edozein enpresak parte har dezan, sektore anitzeko ETEen errealitatera egokitutako erreferentzia-esparru estandarizatu batez baliatuta. Tresna horrek zirkulartasunerantz nabigatzeko irizpide argiak emateaz gain, etengabeko laguntza eta euskarri teknikoa ere bermatzen du, eta, horrela, enpresei praktika zirkularretarako trantsizioa errazten die, aldaketari bakarrik aurre egin gabe.

